

Gizarte ekimeneko ikastetxeetako gatazka bideratu eta hitzarmena berritzeko negoziazio mahaiari berrekiteko proposamena

EAEko Gizarte Ekimeneko hitzarmenaren negoziazio mahaiari ordezkaritza dugun sindikatuok eginiko proposamena onartzeari Kristau Eskolak emaniko ezetzaren aurrean, ELA, CCOO, STEE-EILAS, eta UGT sindikatuok berriro ere patronalak azalduko arazo ekonomikoei irteera ematen dien beste proposamen integral bat luzatzen dugu gatazkari irtenbidea eman asmoz eta hitzarmena berritzeko negoziazio mahaiari berriro ere heltzeko:

- Aurrez adierazi moduan, funtsezkoa ikusten dugu momentu honetan indarrean dagoen hitzarmena berreskuratzea eta bere osotasunean ikastetxe bakoitzean aplikatzea (hau da, bertan jasotzen diren soldatak eta gainerako eskubide eta lan-baldintzak). Horretarako, ondorengo proposatzen dugu:
 - Hitzarmena bere osotasunean betetzen hasteko data moldatzea bi proposamenen arteko alde ekonomikoa berdindu arte, ikastetxeek aurreikusirik duten esfortzu ekonomikoa baina handiagoa egin beharko ez dutelarik. Edozein kasutan hitzarmena 2013-14 ikasturtearen barruan berrezarri beharko litzateke.
 - Hau honela izan dadin, beharrezkoa balitz, prest gaude orain arte pilaturiko zorraren ordainketarako epeak eta moduak negoziatzeko ondorengo salbuespenekin:
 - Beti ere, 25.000 € baino gutxiago jasotzen dituzten langileentzat, orain arte adosturiko ordainketa epeak errespetatuko dira.
 - Jada ikastetxean lanean ez dauden langileei berehala ordainduko zaie zor osoa.
 - 2015eko abenduan itunduriko moduluetan murrizketak mantenduko balira gure konpromisoa azaltzen dugu elkarrekin egoera aztertzeko eta errealitate berriari irteera emateko.
 - Prest gaude egoera konplikatuak sufritzen ari diren ikastetxean banan-banan aztertu eta langileen ordezkariei eta ikastetxeen zuzendaritzekin adosturiko irtenbideak aurkitzeko.
- Plantillak mantentzeko arazoak dituzten ikastetxeetan lanpostua mantendu ezin duten langileak hitzarmenaren aplikazio eremuko beste ikastetxe batean birkokatzeak akordioa eskatzen dugu.
- Ikastetxe guztietan eta gai ezberdinetan langileen parte-hartze eta erabakitze bideak abiaraztea eskatzen dugu.
- Hitzarmena berritzeko negoziazio mahaiari irekitzea eskatzen dugu, baina indarrean dagoen hitzarmenarekiko murrizketa planteamendurik gabe. Honetarako funtsezkoa ikusten dugu EAEko Auzitegi Nagusiaren epaiari helegitea erretiratzea.
- Azkenik, beharrezkoa ikusten dugu Eusko Jaurlaritzari interpelazio zuzena egiten jarraitzea eta presioa indartzea murrizketa politika alde batera utzi dezan eta zerbitzu publikoetan, oro har, eta hezkuntzan, modu berezian, bere inbertsioa handi dezan.

Donostian, 2014ko urtarrilaren 29an
ELA, CCOO, STEE-EILAS eta UGT